



LIZTOR BELTZAREN HABIEN SUNTSIKETA UROLA KOSTA

2024.KO KANPAINA

Liztorlarnak
Mandasko dukea, 6, 2 A
20012 Donostia
688805425

SARRERA:

2024an, liztor beltzaren (ikus I. eranskina, Espeziearen biologia) habiak suntsitzeko kanpaina apirilean hasi, eta abendura arte iraun du.

Urtero bezela, uztaila erdira arte habi gehienak primarioak izan dira. Txikiak eta liztor kopuru baxuarekin; erregina eta bere lehenengo errunaldietatik jaiotako liztor langile batzuk. Hauetako habi gehienak kentzeko errazak dira, eta biozidarik gabe, potearekin kendu ditugu, beti ere eskuz kentzeko aukera baldin bazegoen.

Uztaila erditik aurrerako abisuak berriz, gehienbat sekundarioak izan dira. Handiak, eta liztor kopuru altuarekin. Hauetako batzuk ere eskuz kendu dira biozidaren erabilera ekiditzeko, baina gehienak biozidarekin tratatu behar izan dira, hainbat arrazoi desberdin direla eta: eskuz iristeko ezinezkoa delako, liztorrak zirrikituren batetik sartu eta habia ikusten ez delako, sasi artean dagoelako.

Kasu guztietan ahalik eta biozida gutxien erabili dugu, habia desaktibatze nahikoa izanik.

METODOLOGIA:

Kanpainak iraun duen bitartean, Gipuzkoako foru aldundiak prestatutako Sarbide aplikazioan zabalik egon diren abisu guztiei erantzuna eman diegu.



Kanpainan zehar Urkome landa garapen elkarteari transferitutako abisu guztietaraino hurbildu gara (247 abisu), eta abisuen % 98ean habia suntsitu dugu (241 abisu).

Abisuen beste %2an (6 abisu) ez dugu habirik suntsitu, ondorengo arrazoiengatik: ibaiaren gainean dagoelako; pertigarekin iristeko altuegi dagoelako; espeziea liztor beltza ez delako; liztor mugimendua ikusi bai, baina habirik topatu ez dugulako. Egoera horietan guztietan, zegokion udaletxea jakinaren gainean jarri dugu, suhiltzaile, basozain, edo zegokionari abisua pasa ziezaion.

Habiak suntsitzeko biozida ezinbestekoa izan denean, Diptron biozida erabili dugu, %1-era, habian zuzenean txertatuz. Pertika luzea erabiltzen dugu horretarako, habia 3 metrotik gorago baldin badago, eta eskuko ihinztigailua habia 3 metrotik beherago egon ezker, edota leiho edo balkoi batetik iristeko distantzian badago.

Bestalde, 2024ko kanpainan, urriatik aurrera lehendabiziko aldiz, Painball-eko markadorekin lana egin dugu habi batzuk suntsitzeko. Modu honetan, aurreko urteetan tratatu ezin genituen zenbait habi mota, aurreko teknika honekin suntsitu ahal izan ditugu. Alegia, poste elektrikoetan, garabietan, edota ibai gainean topatutako habi batzuk.

Habi sekundario gehienak aurkitzen diren tokian bertan utzi ditugu, inaktibatutak; primarioak, aldiz, -eta udalek eskatutako sekundarioak, baita ere- kendu ditugu, eta egokia den tokian erre.

Habia desaktibatze nahikoa izanik, ahalik eta biozida gutxien erabiltzen saiatu gara. Zentzu honetan, habiak tratatzeko teknikak egokitzen saiatzen gara urtetik urtera, eraginkorrak izanik, ingurugiroa ahalik eta gutxien kaltetuz.

Biozidari dagozkion babes neurriak behar bezala hartu ditugu, une oro.

Biozidari buruzko informazio zehatza II. eranskinean dago (Diptron con etofenprox, Laboratorios Quimunsu).

EMAITZAK:

2024ko kanpainan guztira 241 habi suntsitu ditugu Urola Kostan.


Jarraian, herriz herri egindako zerrenda aurkezten da, habi gehien eduki dituen herritik, gutxien eduki dituenera:

	55 Azpeitian
	46 Azkoitian
	44 Zarautzen





31	zestoan
17	Orion
15	Zumaian
12	Getarian
10	Errezilen
5	Aizarnazabalen
4	Aian
2	Beizaman

Datuok hurrengo grafikoan bildu ditugu, eta hilabeteka bereiztu ditugu (kolore bat, hilabete bat):



Hurrengo bi grafikoetan ikus dezakegunez, aurtengo kanpaina osoan suntsitu ditugun habien laurdena baino gehiago, urrian suntsitu ditugu (62 habi, 241etatik: %26).

Bestalde, uztailatik azarora bitartean, suntsitutako habi guztien % 89 suntsitu ditugu; hau da, bost hilabete horietan 214 habi deuseztatu ditugu, 241 etatik.



ONDORIOAK:

- Aurten Urola Kostan jasotako datuak kontutan hartuta, ikus dezakegu aurreko kanpainatako oso antzekoak direla. Azkeneko hiru urteetan topatutako liztor beltzaren habi kopuruak ez duela gorantz egin esan dezakegu:
 - 2022an 245 habi
 - 2023an 264 habi
 - 2024an 241 habi
- Urola kostako 11 udalek Urkome landa garapen elkarteari transferitutako abisu guztiei erantzuna eman zaio, abisuen %98an liztor habiak deuseztatuak izan direlarik.



- Liztorlanak, Urkome eta Udalen arteko elkarlana, beharrezkoa izan denean, oso zuzena eta argia izan da. Udaltzain, suhiltzaile, basozain edota brigadistengandik zenbait abisutan jasotako laguntza, azkarra, eraginkorra, eta benetan eskertzekoa da.
- Zenbait kasu berezientzat, lehendabiziko aldiz, Painball-eko teknika erabili dugu, eta kasu horietarako teknika eraginkorra dela frogatu dugu.

Honenbestez, 2024.ko kanpainari amaiera eman diogu.

Ekainaren 25eko 830/2010 errege dekretuak aginduz, enpresako arduradun teknikoa den

Miren Edurne Durandegi Añorgak sinatuta

2025eko urtarrilak 16ean

*Ingurumenak kezkatzen gaitu eta berau ez kaltetzeko ahaleginak egiten ditugu. Produktu kimikoa soilik beharrezkoa den kasuetan aplikatzen dugu; eta egiten dugunean, ahalik eta kalte gutxien sortzen saiatzen gara, hondakinak behar bezela kudeatuz, lixibiazioa sahiestuz, eta produktua neurrian erabiliz.
Horixe da gure konpromisoa*

I ERANSKINA. Espeziearen biología.

Vespa velutina Lepeletier, 1836.

Liztor beltza edo liztor asiarra du izen arrunta. Himenopteroen ordenako intsektua da, jatorria Asian duena, eta Gipuzkoan 2010.ean ikusi zen lehen aldiz. Fauna exotiko inbaditzaileztat du Eusko Jaurlaritzak eta 2013an lehen urratsak eman zituen bere kontrolerako, habiak suntsitzeko plana martxan jartzearekin,

Udaberrian erreginak lehen habia eraikitzen du, txikia, eta lehen arrautzak erruten ditu bertan.

Hortik jaiotakoekin hasten da kolonia, eta, hazi ahala, bigarren habia sortzen du, handia; bertan arrautzak errun eta errun aritzen da, eta kolonia finkatzen du.



Gehienetan zuhaitzetan eraikitzen ditu habiak (% 50), baina gerta daiteke teilatu azpitan, persiana-kaxatan, edota ongi aireztatutako txokoetan eraikitzea, gizakiaren alboan.

Nektarez, fruta helduz zein erleetatik edota beste intsektuetatik lortzen dituzten proteinetaz elikatzen dira. Erleuntzen hazkuntza moteltzen dute, eta, ondorioz, ezti ekoizpena; aitzitik, gizakiarekiko ez da oso erasokorra, zirikatu ezean. Zirikatuz gero, edo habi inguruan zarata handia sortuz gero, taldean erasotu dezakete, eta horrek arriskutsu egiten ditu, Kontuan izan, liztor bakar batek behin eta berriz sar dezake eztena, erleek ez bezala.

Itxurari dagokionez, iluna da, abdomeneko laugarren segmentua izan ezik, horia baita. Eta hankak ilunak izanik, argiak ditu amaieran. Horiek nahikoak dira Europako liztortzarra den *Vespa Crabrotik* bereizteko. Gainera, habien forma ere desberdina dute bi espezieek.

II ERANSKINA. Diptron con etofenprox, Laboratorios Quimunsa.

DESCRIPCIÓN:

INSECTICIDA, ACARICIDA y LARVICIDA basado en la materia activa ETOFENPROX, molécula de última generación que presenta una mínima toxicidad. Especialmente Indicado para tratamientos que requieren una buena protección contra las plagas. Gran eficacia y persistencia contra insectos voladores y rastreros, Incluso contra los insectos resistentes a otros insecticidas tradicionales. Actúa por contacto e ingestión y elimina los ácaros, los Insectos adultos y los insectos en estado larvario.

PROPIEDADES FISICO QUIMICAS:



Estado físico: Líquido

Color: Incoloro-ambarino

Olor: Característico

Densidad: 0.05 gr/cm³ 20 °C

Punto Ebullición: > 140 °C

Punto Inflamación: < 50 °C

Presión Vapor: < 9.5 mm de Hg

Solubilidad-Agua; Emulsiona en agua

Solubilidad-Otros: Miscible con muchos disolventes orgánicos

PRESENTACIÓN:

Botella 0,5L

COMPOSICIÓN:

BUTOXIDO DE PIPERONILO 20%

ETOFENPROX 10%

EXCIPIENTES DISOLVENTES C.S.P. 100%

REGISTROS

D.G.S.P.: 20-30-05749

D.G.S.P.: 10-30-05749 HA

MODO DE EMPLEO:

Antes de usar el producto léase detenidamente la etiqueta, A fin de evitar riesgos para las personas y el medio ambiente siga las instrucciones de uso, ventílese adecuadamente antes de entrar en el recinto, NO mezclar con otros productos químicos, Evitar el contacto con las superficies tratadas, NO utilizar en presencia de personas y animales domésticos. No aplicar en zona de juegos de niños, guarderías y colegios infantiles. No aplicar sobre alimentos ni

utensilios de cocina, ni sobre superficies donde se manipulen, preparen, consuman o sirvan alimentos.

Aplicación mediante pulverización o nebulización del producto diluido en agua. En la industria alimentaria el producto se aplicará mediante pulverización del producto en agua dirigida a zócalos y suelos. No podrá aplicarse de forma aérea ni mediante equipos de nebulización. La aplicación en la industria alimentaria habrá de llevarse a cabo en ausencia de alimentos respetando el plazo mínimo de seguridad, se tomarán todas las medidas necesarias para que los alimentos, maquinarias o utensilios que sean manipulados en los locales o instalaciones tratadas previamente con el mencionado producto, no contengan residuos de ninguno de sus ingredientes activos. Para desinsectar pulverizar el producto diluido en agua sobre el tejido, dejar que el producto actúe y a continuación aspirar o lavar tejidos tratados, NO aplicar sobre prendas o tejidos que vayan a estar en contacto la piel. Dosificación: Dilución al 1% en agua, Aplicar 1L de caldo para una superficie de aproximadamente 5-10m²